

ZENBAT BURU

Miren Vallejo

ERREPORTAIA

Taxista lanbidea

Elgoibarren

BARREN

1998ko irailaren 25a
V. urtea - **249. zkia**

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

BERBETAN


Antonio Irisarri

argazkilaria

KULTURA

Tanttaka Teatroaren

azken antzezlan



Taxi!

“Taxiari esker mundu osoko jendea ezagutu dut” Sabin Beristain, taxista

GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 943 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 943 74 03 96

LUIS F. BERISTAIN

Sukaldeak - atek - zoluak
Artetxe, 1
☎ 909 42 68 19

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 943 74 14 80
☎ 908 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61, behe
☎ 943 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 907 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 943 74 07 89
☎ 908 14 30 40

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 907 74 04 40

PINTURAS ELGOIBAR FERMIN

Urasandi, 57-3
☎ 943 74 39 91
☎ 909 76 28 80

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 989 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 907 41 78 67

KIDEEK S.L.

San Roke, 17
☎ 943 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
☎ 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 943 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 943 74 30 94



MIREN VALLEJO

Futbola jokoa da, ez borroka

Aspaldi erabaki nuen nik BARRENeko bigarren idatzian futbolari buruz jardutea. Gauzak zela diren, azken aldian futbola gora, futbola behera, besterik (kirol arloan behintzat) ez da entzun. Clementerekin izan diren gorabeherez ari naiz. Gai honi buruz ez dut inongo iritzirik plazaratuko, gauza bat argi laga baino ez dut nahi: futbola jokoa da, ez borroka. Futbola baloiarekin egin behar da, zelaian. Jokoa horixe izan behar du: jokoa. Ostikada demasa eman, kite ederra eta pase hobea egin, eta, gol! Hori bai, gola gure alde, noski. Pase txar bat ikusten dudanean, 'mozolua!' esaten dut, besterik ez.

Baina gola sartzen dutenean, orduan bai, salto egiten dut, atzeko aldean txapigua edukiko banu bezala.

Futbola, foballa, gure aita zenak, Vallejok esaten zuen bezala. Zer esango dizuet futbolari buruz. Hainbeste mundial eta partidu amistoso egon dira eta, zenbat eztabaida egon ote diren familie-

tan! Gizonak partidua ikusi nahi eta emazteak zer! Ba, beste kate bat ipini, eta kitto. Zer gauza ezta?

Ni ez naiz aspertzen futbola ikustez. Askok gustatzen zait. Sinesten al duzue Futbol Mundialeko partidu den-denak edo ia denak ikusi nituela? Zenbat

bider esan dut mutila izan banintz futbol jokalaria izango nintzela, eta gainera, defentsa.


Igandean partidua badago, aste osoan eta bezperan batez ere, ilusio itzela edukitzen dut; bihar partidua! Errealekoa naiz ni, baina ez beste batzuk bezala 'forofo' amorratua, ez. Galtzen badute, goibel geratzen naiz, baina berehala

pasatzen zait, jokoa halaxe da. Ez dut ez orru ez zaratarik ateratzen. Jokoa ikustea gustatzen zait, nahiz eta asko ulertu ez. Errealaren ligako lehenengo partidua ezin izan nuen ikusi, Oviedorekin jokatu zuenean. Ea hemendik aurrera ikusten dudana eta irabazten duen. Aupa Erreala!

"Igandean partidua badago, aste osoan eta bezperan batez ere, ilusio itzela edukitzen dut; bihar partidua!"

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 ☎ **943 74 41 12**
Publizitatea:
 ☎ **943 74 37 04**
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:

barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA Miren Moreno

MAKETATZAILEA Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maidier Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Iban Urizar,

Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



Lagako al digute orain?

Bai, badakit azken egunotan ez dela beste gairik izan. ETaren su-etena, Clintonen eskapaden baimenarekin, azken urteetako notiziarik aipatuena izan dela esango nuke. Clintonen gonapeko lanek batere arduratzen ez nautenez, besteari buruzko pare bat gogoeta egin nahiko nituzke.

Benetako eskaintza ote da? Hauteskundeei begira egindako tranpa al da? Oraingoan iritsiko al da pakea? Aurreko kezkei beste bat gehitu nahi nieke: lagako al digute orain? Lagako al digute euskaldunoi guk nahi eta erabakitzen duguna izaten? Badirudi euskaldunok, ume txikiak bagina bezala, baimena eskatu behar diogula Estatuari hau edo bestea izateko. Konstituzioak eta honen zaindarien (ejertzioa ere bai?) markatzen dituzten lerroetatik ezin omen gara pasatu. Nahi duguna egin dezakegu baina Konstituzioak ezartzen dituen muge-tatik pasatu gabe. 'Ibiltzen aspaldi ikasia dugu, otsoak eskutik hartu gabe' zioten Pantxoa eta Pellok Monzon-ek idatzitako kantu batean, baina bis-tan da otsoak ez duela gure eskua sol-tatzerik nahi, ondo lotuta nahi gaitue-la.

Noiz arte ibili behar dugu besteen eskutik? Euskaldunok ez al gara inoiz 'edade maiorrera' iritsiko guk nahi ditugun bideak eta bidelagunak aukerat-zeko?

ETak su-etena aldarrikatu du, as-palditik itxaroten genuen notizia da. Baina hemen soka luzea datorrelako-an nago. Eta sokari kolpe egiteko prest jende askotxo ikusten dut. Bat-zuk alde batera tira egingo diote, bes-teok gure aldera egin beharko dugu. Indarra eurek dute, baina arrazoia guk. Izateko borondatea da euskaldu-nok soka gure aldera ekartzeko ezin-besteko baldintza. Zer izan nahi du-gun argitu behar dugu: euskaldunak izan nahi al dugu? berdin al zaigu eus-kaldun-espainolak izanda? espainia-rrak izanda ere ez al da ezer pasatzen?

'Vascos si, ETA no' zioten ETak Miguel Anjel Blanco hil zuenean. ETak esan du NO, ikusiko dugu orain besteek VASCOS SI bakarrik onartu-ko duten ala EUSKALDUNAK BAI ere ametitzeko prest dauden.

L.J.I.

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.

GALDERAK

◆ Herritar batek honako galdera hau luzatu digu: **“Udal Kirol Patronatuak futbitoko kartelak gaztelania hutsez idatzita jarri ditu herriko kaleetan. Ez al dago Patronatua Gurean Bai-n? Ez al ditu, gutxienez, bietara, euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu behar informazio orri guztiak?”**.

“Udal Kirol Patronatuak ez du kaleratu futbitoko txapelketaren kartelik ez baita antolatzailea, laguntzailea baizik (Kiroldegiko instalazioak uzten ditu). Beraz, antolatzaileek, (Elgoibar Futbol Sala) erantzun beharko liokete galdera honi.

Patronatuak kaleratzen dituen kartel, diptiko eta bestelakoak euskaraz soilik edo ele bietan izaten dira beti”.

KEXAK

◆ Urasandiko senar-emazte bat etorri da Udalari kexa hau helarazi nahirik: “Urasandiko pertsona asko **Herri Eskola eta Errezabal baserriaren artean dagoen** tokian pasiatzen ibiltzen gara arratsaldero. Espaloi bat dago buelta osoan eta bertan ibiltzen gara. Kontua da **espaloia belarrez dagoela inguratuta eta izugarri hazita dagoela, oinez ibiltzeko traba egiten duen punturaino**. Duela 15 egun Udaletxera jo genuen bazela belarra mozteko garaia aditzera emateko. Pasatu dira beste horrenbeste egun eta belarrak moztu gabe jarraitzen du. BARREnera jo dugu ea gure kexak oihartzunik izaten duen”.

◆ Bederatzi urteko **lau mutikok Elgoibarraren bizikletan ibiltzeko ganorazko lekurik ez dagoela-eta kexatu nahi dute**. “Zarautzen, Loiolan, Getxon, eta beste herri batzuetan bide gorriak daude baina Elgoibarren ez. Bizikletan ibiltzeko tokiak jartzea gustatuko litzaiguke”.

BAI, ESAN?



Arnaldo Otegi

HBko bozeramailea

ETak mugagabeko su-etena aldarrikatu zuenetik ez da beste ezertaz berba egiten. Gehienok pozik hartu dugu notizia, errezeloz begiratu dionik ere izan da, baina denok gatoz bat garai berri baten atarian gaudela esaterakoan. Su-etenak sortu dituen erreakzioei buruz berba egiteko eta etorkizuna nola ikusten duen jakiteko deitu diogu **HBko bozeramailea den Arnaldo Otegi** elgoibartarrari.

- **Euskal Herriko biztanle gehienek pozez hartu dute treguaren notizia. Estatuan oso bestelako erreakziorik ere izan da.** - Ez dut uste horrela izan denik. Egia da Estatu ezberdinak, frantses zein espainiar estatuek, inongo borondatearik ez dutela ageri. Aitzitik, ziur naiz gizarte espainiar zein frantziarrak, ilusioz hartu dutela berria. Gure lehia ez da frantses zein espainiar herriaren kontra, gure oraina eta etorkizuna inposatu nahi diguten Estatuaren kontrakoa baizik.

- **Urriko hauteskundeak pasatu arte Gobernuak ez omen du inolako keinu edo kontzesiorik egingo.** - Notizia onak euskaldunok, gure baitan bilatu behar ditugu, Madril zein Parisetik notizia onak ezin daitezke espero. Hala ere, garbi dago, euskaldun abertzale eta aurrerakoi guztiek elkarlanean lortuko dugula behin betiko gure herriak, Europako nazio zaharrenak alegia, bere etorkizuna libreki hautatzeko eskubide osoa izatea. Bestalde, ziur gaude urriaren 25ean albiste oso pozgarri bat egonen dela, EHk emaitza ezin hobekak lortuko baititu egun horretan.

- **Treguaren ostean, badirudi bi bloke sortzen ari direla, abertzaleak eta EE-IU alde batetik, eta PP-PSOE bestetik. Posible izango al da denen gustuko erdibidea topatzea?** - Gustukoa ala ez, hemen justizia eta demokrazian oinarritutako irtenbidea bilatu behar da. Hau da, Atturritik Ebroraino bizi den herri honek eskubide demokratiko eta nazionalak ditu garatzeko. Hemen kultura politiko ezberdinak daudela argi dago, batzuk, gehienak, euskaldunak sentitzen gara, beste batzuk espainiar zein frantsesak. Guztien arteko lehia berdintasunean izan dadin, lehia demokratikoa izan dadin, funtsezkoa da autodeterminazio eskubidea zein lurraldetasunarena gure esku izatea. Egun, gure etorkizuna ez dago gure esku, Madril eta Parisen esku baizik. Hau da aldatu behar dena. Euskaldunok izan behar dugu, eta soilik euskaldunok, Espainia eta Frantziaren inolako beto eskubide eta injerentziarik gabe, gure etorkizuna erabaki behar dugunak. Gurea izan behar da hitza eta erabakia.

- **Udalerrien Biltzar Nazionala martxan jarri behar da. Zer da hori?** - Gure herria zatikatutik dugu hiru zatitan: Vascongadoak eta Nafarroa Estatu espainiarraren menpe eta iparralde Frantziaren menpe. Ez dugu, beraz, topagune bat, denek elkar eztabaidatu eta erabakiak hartzeko nazio gisa. Guk martxan jarri nahi dugun instituzioa, Udalerrien Biltzar Nazionala, Euskal Herri osoko udalez konposatuta dagoen instituzio bat da, lurralde zatiketa gainditu eta Atturritik Ebroraino Euskal Herria bakarria dela azpimarratzen duena.

ESKERTZA



1998ko irailaren 16an, 48 urte zituela hil zen
JESUS C. GARITAGOITIA LOIOLAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola
hileta elizkizunetara agertu izana.



TAXI!

Taxi! Taxi! Taxistaren ofizoak badu xarma berezirik, hala erakutsi izan digute behintzat zenbait pelikuletan: hara eta hona, era guztietako jendearekin harremana, bitxikeriak, abenturak... Halere, ume batek esan zuen bezala "pelikuletan musuak ere politagoak dira musika dutelako". Hau da, taxistaren bene-benetako lana telebistan ikusten duguna baino askoz sinpleagoa da, arruntagoa, abiadura azkarrean poliziarengandik ihesi edo beste auto bati segika ibili beharrik gabe. Elgoibar eta Mendaroko hiru gidarirekin izan gara honen inguruan hitz egiteko.

Kontxi Urainek 35 urte ditu eta zazpi daramatza taxista lanean Mendaron. "Eibarren nenbilan kamarera eta Mendaron Udalak etara zaban taxista plaza bat. Aukera ona izango zala pentsatuta aurkeztu nitzan eta ordutik jarraitzen dot".

Mendaron izan den lehen taxista profesionala dugu Kontxi, "lehen bazauan bat baina tailarrian itxen zaban lan eta noizian behin ibiltzen zan kotxiakin. Paradia euki daban lelengua ni izan naiz".

Mendaroko Ospital parean dago Kontxiren taxi geltokia. Hurreratu ginenean mugimendu handia zegoen, jendearen joan-etorri ikaragarria. "Ospitala egotia ona da, ze bestela Mendaron bizitzeko besteko lanik ez dao". Gaur egun emakume izatearen aurrean bezeroek erreparorik ez dutela jartzen esan digu, "jendia ohitxu da eta askok galdetzen dabe ia nun dauan emakume taxistia. Konfiantza berdina dau gizon edo emakumezkua izan".

Aurten berritu du autoa. Mekani-kari buruz gauza handirik ez omen daki, "gida baimena etartzeko ikasi naban baina gaur egun beste edozeinek bezela asmatuko nuke errobera bat aldatzen. Zorionez sekula ez dot euki arazorikan".

Bere lana ez zaio batere gogorra egiten, "nahiko lasaia da. Goizez ospitalian egoten naiz eta ostantzian askotan etxian, ze gaur egun telefonuakin funtzionatzen dogu eta Mendaron ez

da egoten mugimendu askorik". Hori bai, gelto-kian ematen duen denbora ondo aprobetxatzen du, "azkenian kotxia zure bigarren etxia bihurtzen da. Hasi nitzanian puntu eta gantxilo asko itxen naban, jertse mordo bat, eta denda bantentzat enkarguak ere itxen nitxun. Oin jertse gitxio itxen ditzut baina hori seinale ona da, ze taxista bezela lan gehixo dakatela esan nahi dau".

Industriarekin lotutako lanbidea

Sabin Beristain, 43 urteko elgoibartarrak honek 8 daramatza taxiarekin eta behin gertatu zitzaion mutil gazte batzuk Debara eraman eta iritsi orduko korrika ateratzea, "ez dakit nobato aurpegia ikusi zidaten edo zer, baina ordaindu gabe alde egin zuten".

Sabinen esanetan, "Elgoibarren taxistaren lana industriarekin lotuta dago. Gure bezerorik finenak enpresak dira eta, noski, enpresen egoera ona bada, gure lanak gora egiten du. Taxista bakoitzak bezero konkretua duela esan daiteke, "ez dago kontraturik bai-



Kontxi Urainek Mendaroko ospitale parean du taxi geltokia.

na ohitura da beti edo ia beti taxista berari deitzea". Bezero mota hori, noski, urteen eraginez lortzen da, "nik hasieran ez nuen inor ezagutzen baina gaur egun kontaktuak ditut. Horrek ez du esan nahi nire ondoren etortzen denak bezero horiek mantenduko dituenik. Nik nire bezeroei esan diezaieket nor etorriko den nire partez baina gero euren esku dago horri deitu edo ez. Bezeroak ez dira lizentziarekin erosten".

Sabinek azaldu digun bezala bezerorik gehienak enpresa gizonak dira, "era guztietako jendea ezagutzen duzu, mundu osoko jendea: alemanak, frantsesak, txinarrak... Polita da horiekin berba egitea, niretzat lanbide honek duen beste puntu garrantzitsu bat da". Nazionalitate desberdinetako jendearekin egon behar zuenez gaez ingelesa ikasten hasi zen, "kriston paloa

zen jendearekin komunikatu ezin izana eta lanbide honetarako ingelesa jakitea beharrezkoa nuela konturatu nintzen. Hiru urtez ibili eta gero behintzat defenditzeko gai naiz”.

Taxistak egun batean ordu mordo bat lan egin arren, gerta daiteke hurrengo egunean batere ez mugitzea. Horregatik, ordu asko ezer egin gabe egoten ohitu beharra dago. “Egia da zortzi orduko lanbidea duen pertsona bati lan egiten zaiola ezer egin gabe egotea, baina taxista bezala aritu naizen denboraren bizitzako detaile txikiekin disfrutatu ahal izan dut, txori bati begira, jentilak irratia entzuten... Lanbide lasaia denboraren lasaitasun horrekin ere disfrutatu ahal izan da”.

Sabin izan zen lehen taxista elgoibartarra telefono mugikorra izan zuena, “eta egia esan taxistaren lanbidea aldatu egin zuen. Lehen geltokiko telefonora deitzen zuen jendeak eta lehenengo zerekin goenak hartzen zuen mezua. Gero egun bakoitzak bere telefonoa daramatzen. Batetik, ez duzu geltokian egon behar denbora guztian eta, bestetik, lan orok aukeratzeko du nori deitu nahi duzula. Noski, lotuagoa ere bada egun osoan orduz, konektatua izaten baituzu telefonoa”.

Edozein modutan, Sabinak taxista

heldu nahi diot. Aldatzea gustatzen zait”.

Badakizue, beraz, norbaitek taxista lanbidea gustuko badu Sabin Beristainek bere lizentzia salgai dauka, berari galdetu besterik ez du.

Lanbide lotua

Jose Luis Bollarrek 41 urte ditu eta

Jose Luisi taxista denetik, “lehen, nere zortzi orduak ein eta gainontzeko denboria libre naukan nahi nabana itzeko, bizikletan ibili, mendira jun... Oin ez dakat denborarik holakuetarako, ze edozein momentutan deitzen dizue telefonoz”. Halere, telefonoari esker, “egun osua geltokian egon biharian aukera dakazu ahalik eta gehixen zure bizimodua itzeko”. Bollarren iritziz,



Jose Luis Bollar-ek denbora libre ez izatea botatzen du faltan.

taxista izateko baimena ateratu eta arri sartu zen ofizio berria ireki zuen. Abantaila bat bazeukan, lanbidea beti gustatu izan jata eta denborarako hori oso inportantia irratistainek esan bezala, Bollarrek ere gaineratu du bidaia-gehienak inguruan izaten direla, “aireportura batez ere. Horrez gain, barizekin arazak ditzuzten emakumiak Biarritzera eramaten ditxut medikora”.

Hiru urteko esperientzia dauka eta azaldu digu, “txarrena oso lan lotua da. Egutero 24 ordu daka telefonua konektatuta eta edozein momentutan deitzen ditxake bezero batek”. Neure denboran bizitzia aldatu zaio

bat daukat ze irteera guztiak apuntatzia gustatzen jata”. Elgoibar bezalako herri batean edo hiri batean taxista izatea oso desberdina da, “hiri batian askoz agobiantiaua izango da eta seguru gauza xeibre gehixo pasatzen diazela. Hemen, Elgoibarren, hasi nitzanian, akordatzen naiz zela egun batian geltokian nauala bizardun bat ikusi nabana. Han zauan, geldi, baina ez zaban taxirik hartzen. Etxera jun nitzan bazkaltzera eta bueltatu nitzanian lelunga jarri nitzan filan eta bizarduna nere kotxian sartu zan. Biaje hartan benetan bildurra pasau nabana, nahiz eta ezer gertatu ez”. Jose Luisek ez daki taxista bezala jubilatuko den, “baina uste dot beste zeozer topatu ezkeror aldatuko nukeela. Ez dago 8 ordu lan in eta gero libre eukitzia bezelakorik. Bizitzia kalitatea da hori”.




Telefono mugikorra erosi zuen lehen taxista elgoibartarra izan zen Sabin Beristain.

ETAren su-etena: Bakea gero eta gertuago?



JOSUNE MAKAZAGA
53 urte, etxekoandrea

Baietz esan leike baina zaila da nahiz eta esperantzak hor dauan eta danok nahi doun. Danon lana da, ze etxian pakerik ez badao kalian ez da egongo.



RAUL AMADO
17 urte, ikaslea

Ez nuen espero horrelakorik eta asko poztu nintzen. Orain Madrilgo gobernua-ren txanda da eta ez dirudi gauzak erraztuko dituztenik. Halere, itxaropena hor dago.



ALICIA DOMINGUEZ
25 urte,
gasolindegiko langilea

Badirudi baietz. Garbi dago alderdi guztien esku dagoela eta guztiek jarri behar dute zerbait euren partetik, bestela alferrik baita.



LUIS BARRENETHEA
54 urte, komertziala

Bai, ez da egun batetik bestera ailegauko baina sekula baino gertuo ikusten da. Danon esku dao eta nik us-ten dot danon artian elkar ulertuko gerala.



RAMON ZAPATA
74 urte, jubilatua

Iritsi beharko da nahiz eta ez naizen gehigi fidatzen ETAz. Lehen ere Argeleko elkarrizketekin itxaropena geneukan eta ez zen ezer atera. Ea gauzak aldatzen diren.



ELENA ARRIOLA
57 urte, dendaria

Esperantziakin hartu dot gaitxa. Aber segitzen deben aur-rrera eta noizbaitxen pakia izaten degun, bada ordua eta! Alderdi guztiak zeditxu bihar dabe oin zeozer lortzeko.



BARREN *astekarian*

PUBLIZISTA behar da

ESKATZEN DA

- Ikasketa ertainak
- Harremanetarako dohaina

BALORATUKO DA


- Marketing/publizitate ezagutzak
- Komertzial lanetan esperientzia
- Autoa edukitzea

ESKAINTZEN DA

- Urtebeterako kontratua (soldata finkoa + komisioak)

Izena emateko azken eguna: URRIAREN 2a (ostirala)

Izena emateko eta informazio gehiago: Elgoibarko Izarra R. E. Ubitarte 4, behea (Tel. 943 74 16 26)



Osasunean adituak

GAIA:

Idorreria

Gero eta jende gehiagok izaten du egunero komunera joateko zailtasuna. Idorreria ez da gaixotasuna baina kasu askotan oso desatsegina izan daiteke.

Noiz esan daiteke pertsona batek idorreria duela?

Astean hiru aldiz baino gutxiago egiten denean kaka. Estee mugitzeko zailtasuna izaten dute eta ondorioz, kaka lehor eta gogorra egiten da. Emakumeek gizonezkoek baino sarriago izaten dute idorreria.

Bi eratako idorreria dago: noizbehinkakoa eta kronikoa.

Elikadura aldaketagatik, denbora luzez ohean egon behar izan dugulako, bidaia baten ondorioz edo botikak hartzeagatik komunera joan ezinik egoten gara. Noizbehinka gertatzen den zerbait da. Kasu hauetan efektu laxantea duten sendagaiak erabiltzea komeni da (naturalak: Cáscara Sagrada, Sen, Frángula edo, farmaziako laxanteren bat).

Bigarren kasua, idorreria kronikoa hain zuzen, gure elikaduran fibra nahikoa hartzen ez dugulako gertatzen da. Etxetik kanpo sarritan jaten dugulako, dieta ez orekatua daramagulako edo fibra nahikoa hartzen ez dugulako izaten da (30 fibra gramo behar dira egunero, eta normalean 10-14 gr. baino ez ditugu hartzen).

Stresak, bizitza sedentarioak eta ur gutxi edateak idorreria izateko aukera areagotzen dute.

Fibra gehien duten elikagaiak fruta freskoak, barazkiak, lekariak, eta elikagai integral guztiak dira.

MASAJISTAK

Ezkurra

..... Santa Ana, 14 • Tel: **943 74 08 96**
 Egunero: 15:00-20:00

Victoria Iraegi

..... P. Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
 Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
 Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
 Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**
 Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
 Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
 Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

ZENTRO PSIKOMEDIKOAK

Arragüeta (ziurtagiri medikuak, gida eta arma baimenak)

..... Arragüeta, 2 bis A (Hazienda ondoan, ONCE parean)
 • Tel: **943 700 700**

..... Abuztuan, 3tik 8ra: 10:30-12:00

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeke 943 74 41 12ra

● Gantxilo ikastaroa

Elgoibarko Izarra Elkartetik esan digutenez, ikastaro xelebre baina interesgarria antolatu dute, gantxilo ikastaroa hain zuzen. Ezer ez dakitenei eta gauza berriak ikasi nahi dituztenei zuzendua dago eta 12 orduko iraupena izango du. Astearte eta azkenetan izango dira klaseak aukerako bi ordutegi daudelarik: 15:30-17:00 edo 18:30-20:00. Irakaslea Karmen Elortza elgoibartarra da, gai honetan luzaroan aritua eta aditua. Ikastaroaren prezioa 2.000 pta.koa da. Izena emateko 943 74 16 26ra deitu edo Ubitarte plazako egoitzara joan.

● Lodosa herrira txangoa

Jubilatu Etxeak Nafarroako Lodosa herrira txangoa antolatu du datorren urriaren 14rako. Goizeko 8:15ean izango da irteera Plaza Handian. Behin Lodosara iritsita, piper kontserbak egiten dituen lantegi batera bisita egingo dute. Ondoren, XVI. mendeko eliza ikusiko dute eta nola ez, pikilloko piperaren monumentua eta herriko plaza ezagutzeko aukera ere izango da. Eguerdian bazkaria izango da dantzaldi eta guzti eta amaitzeko, zozketa. Elgoibarrera itzulera iluntze aldera izango da. Jubilatu Etxeko zuzendaritzan eman daiteke izena goizez.

● Eskulan ikastaroa

Haizea Emakume Taldeak herritar guztiei zuzenduriko eskulan ikastaroa antolatu du, kuadro tridimensionalei buruzkoa. Ikastaroa urriaren 20an hasiko da eta 30 orduko iraupena izango du, astean 2 ordu emango direlarik. Izena emateko epea urriaren 9an bukatuko da. Interesatuok deitu 943 74 07 81 zenbakira arratsalde-

Euskararen Kontseiluak bere buruaran aurkezpena egin zuen Elgoibarren

Euskarak inoiz egin duen indarbatze handiena da

Duela 20 urte euskal gizarteak 'Bai Euskarari' lemapean indarrak bildu zituen etorkizunerako oinarritzako urratsak ezartzeko. 20 urte eta gero, euskararen inguruan lanean diharduten pertsona, elkarte eta erakundeek bat egin dute, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortu delarik. Joan den astelehen iluntzean, Eibar, Sorraluze eta Elgoibarko 20 bat lagunuen aurrean Kontseilua zer den azaldu zuten. Kontseiluko zuzendaritzako kidea den Fernando Muniozgurenaren esanetan, "50 erakundetik gora biltzen ditu Kontseiluak. 100.000 bazkide ditu eta 50.000 milioi mugitzen ditugu. Horregatik, gizarteak kontuan izan behar du euskaldunok osatzen dugun sektorea". Kontseiluak kanpaina erraldoi bat antolatu du urrian hasi eta abenduan jai erraldoi batekin amaituko dena. Horretarako beharrezkoa da herri bakoitzean lantal-



deak sortzea, "kanpainarako diseinatu diren ekintzak herri bakoitzean antolatu ahal izateko". Urriaren 3an, Zamudioko parke teknologikoan aurkezpen ofiziala egingo da. Azaroan "Akordioaren Astea" antolatuko da herri bakoitzean. Abendurako, sindikatuekin eta patronalarekin adostuta, aste osoan zehar enpresari eta langile guztiek lanordu bat euskararen alde ematea proposatuko dute. Kanpainari bukaera emango dio lehenago aipatutako jai erraldoiak.

EGIN egunkari berriaren proiektuaren aurkezpena egin zen asteartean

1.000 milioi behar dira argitalpen berria kaleratzeko

Kimetz Elkarteak antolatuta, 60 bat lagun elkartu ziren astearte iluntzean Garzón epailearen aginduz itxitako EGIN egunkaria eta irratia berri martxan jartzeko proiektua ezagutzeko. 'Hitz Egin'-eko (EGINen aholkularitarako taldea) bi kide izan ziren bertan, Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkarteak (EKHE S. A.) bultzatzen duen proiektua azaltzeko. EKHEk proiektu berria diseinatu du eta martxan jartzeko behar diren 1.000 milioiak lortuz gero, abendurako kalean izatea espero dute. Egunkari berriak ez dauka izenik oraingoz



eta erredakzioa bost lekutan banatuko da: Baiona, Gasteiz, Iruñea, Donostia eta Bilbo. Egoitza soziala Bilboko Gran Vian izango du. Inprimategia, irratia, editoriala, errotatibak,... arlo bakoitza gestionatzeko enpresa bat sortuko da eta lokal, makinaria eta ekipo informatiko guztia berria izango da. "Gure nahia EGINeko langile guztiak (200etik gora) berriro hartzea da baina badakigu ezinezkoa izango dela. Ordainetan edo, konfiskatutako Hernaniko egoitza eta ondasunak bueltatzen dizkigutenean, saldu eta langileen artean banatuko ditugu".



Deba arroko Haurren Perretxiko Lehiaketa izango da igandean

Perretxiko sasoi batean gaude baina perretxiko gutxi omen dago mendi eta zelaietan. Eguraldia ez dela aproposena, esporen kontua dela, ... batek daki zein den

hain perretxiko gutxi egotearen arrazoia. Dena den, domekan, hilak 27, batean eta bestean batutako perretxikoak ikusgai egongo dira Plaza Handian goizeko 10:00etatik aurrera. Erakusketaz gain, lehiaketa ere bada, Deba eskualdeko 15 urtetik beherako haur guztiei zuzendua. Karakate Mikologia Elkartek antolatzen du eta Aranzadiko kideek erabakiko dute zein diren perretxikorik ikusgarrienak, bitxiak, etab. Oso garrantzitsua da perretxikoak batu berriak izatea eta denak behar bezala identifikatuak egotea. Sailkatze lanari eta aurkezpenari ere berebiziko garrantzia emango zaio. Izen-ematea hilaren 26ko iluntzeko 20:00ak baino lehen Karakate Elkarteko egoitzan egin behar da.



Urriaren 2an, afari-erromeria Sallobentean

Urriaren 2rako, Haritz Dantzari Taldekoek Sallobenteko frontoian afari-erromeria antolatu dute Euskal Herriko Trikiti Elkarteko kide, dantzari ohi, dantzari eta Gelatxoren partaidetzarekin. Bestalde, argazkian ikus daitekeenez, Haritz Taldeak Miarritzeko Jaialdian parte hartu zuen joan den domekan Iruñeko Ortzadar Dantzari Taldearekin batera. Haritzekoek esan digutenez, "1.000 lagun bildu ziren, txalo ugari jaso genituelarik". Bestalde, gaur, hilak 25, San Migeleko frontoian izango dira gaueko 22:30ean hasita. Larunbatean, hilak 26, Debako Gure Kai Dantzari Taldeak antolatutako solteko dantza txapelketan parte hartuko dute epaimahaiko gisa. Igandean, berriz, Berako Haurren Egunean izango dira Musikeskolako haurrekin.

6NEMEN9 taldearen 'Pop-atic' diska salgai

Elgoibarko 6NEMEN9 musika taldeak salgai jarri du bere lehenengo diska, 'Pop-atic', CD formatoan argitaratua. Diska honen aurretik beste bi lan plazaratu ditu talde elgoibartarrak, bi maketa hain zuzen: taldearen izenburu berekoa lehena, '6NEMEN9', eta 'Ertzetik', bigarren maketa. Pop-atic azken lanaren 500 ale jarri dira salgai, edozein musika dendatan eta herriko taberna hauetan eskura daitekeena: Lanbroa, Iriondo, Karobi, Txuri-Beltz eta Oraiko.

AEKri eta euskarari babesak

Azken aldian euskarak jasan dituen erasoak eta, bereziki, AEKren aurka izan direnak salatzen elkartu ziren joan den asteartean argazkiko herritarrak. AEKri laguntza eta babes osoa adierazteko komunikatu bat kaleratu zuten. "Euskararen kontra jardutea euskal herritarron borondate eta erabakien kontra jardutea da. AEKri gure babesak eman nahi diogu, euskararen alde egiten ari den lana onuragarria bezain beharrezkoa delako".



Holografia ikastaro arrakastatsua

Ongarri Argazki Taldeak antolatutako holografia ikastaroak arrakasta handia izan du antolatzaileen esanetan. 14 ikaslek hartu dute parte eta oso gustura ibili omen dira. Irakaslea Patxi Cobo argazkilaria ospetsua izan da, EHUKo irakaslea hain zuzen, eta holografia munduan aditua. Teoriaz gain, ikasle bakoitzak bere holograma egiteko aukera izan du. Gehienak argazkilaritza, zinea eta dekorazio munduan dabilta eta, Bilbo, Elgoibar, Eibar, Donostia, Irun, Legazpia eta Zumaiaokoak dira.





1999ko GIDA

Gure gidan Elgoibar eta Mendaroko

KOMERTZIALA

telefono komertzial guztiak aterako ditugu.

prestatzen ari

Herritarrentzat gida erabilgarriena,

gara Elgoibar eta

erosoena eta errazena. Guri esker beti egongo zara zure bezeroen eskura, 365

Mendaroko telefono komertzial

egun zabalik, 24 ordu egunean. Zure negozioaren publizitatea egin nahi

guztiekin. 1998ko Gidan agertu

baduzu dei ieizaguzu lehenbailehen eta aukeratu zer den komeni zaizuna:

ez bazinen edo daturen bat oker

izena negritaz ipini, publizitate moduluak,... aukera guztiak zure esku.

bazegoen deitu lehenbailehen.

943 74 37 04

KiliBARRREN

Irailaren 25a
48. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



Hilabete honetako erretratu zaharra **Mari Tere Iriondok** laga digu eta bertan Mendaroko neskatxa kuadrila bat agertzen zaigu. 1962 urte inguruan aterata dago Garagartza inguruan.

Hona hemen argazkian agertzen direnen izen-abizenak:

Goian, ezkerretik hasita: **Consuelo Aranberri, Begoña Ansola, Pilar Arrieta, Margari Lazkano** eta **Juanita Garate**.

Behean, ezkerretik: **Mari Tere Iriondo, Mari Karmen Zulaika** eta **Mari Paz Berasaluze**.

OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15 ● ☎ ABERIAK 943 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

KAROBI
TABERNA

ELGOIBAR

Tel. 943 74 06 37
San Frantzisko, 37

*Aprorobetatu udaldira gida
baimena ateratzeko*

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

*bona ematekoan %10eko
beherapena gabe
txartelarekin*

MENDAROTARRAK OPORRETAN

Oporrak bukatu dira eta iritsi da lanean hasteko garaia. Halere, oraindik askoren oroitzapenean daude uztaile eta abuztuko egunak. Mendarotar batzuk herrian geratu diren arren, badira oporrak herritik oso urruti pasa dituztenak ere. Kuban, Italia aldean... Guztiek dute zer kontaturik.

Alberto Orbegozo lehengusu bat bisitatzeko asmoarekin abiatu zen Kubara. “Aste bat La Habanan pasa nuen eta beste aste bat Varadero, baina egunero batera eta bestera ibiltzen nintzen. Mugitzeko onena autoa alokatzea da eta alde horretatik erraztasun asko dago. Izan ere, kubarrak prest azaltzen dira euren autoa alokatzeko, horren truke irabazitako dolarra beste edozein lanbidetan jasotakoa baino gehiago baita. Gainera, beraiek egiten dute gidari eta askoz gauza gehiago ezagutzen dituzu. Jatorduekin antzeko zerbait gertatzen da. Dolar batzuren truke, kubarrek euren etxeko atea zabaltzen dizkizute eta ja-

tekoa eskaini. Azken batean, apopilo bezala bizi zaitezke.

Kasualitatez, Debako ezagun batekin joan nintzen Kubara eta han lau gailego ezagutu genituen. Lehengusua ere tartean zen, beraz, konpainiarik ez zen falta izan. Kubako bizimodua oso desberdina da. Diru asko ez egon arren, ez dago lapurrik, ez eskalerik bide bazterrean. Txikitatik ikasi dute dirua ateratzen eta eskatu egiten dizute baina jende ona da. Beraientzat turista diru iturri bat da baina errespetatu egiten zaituzte. Kuban turista protagonista dela esan daiteke.

Gauean martxarik ez da falta diskoteka ugari daude eta. Halere, La Habanako diskoteka gehienak kubatarrentzat diren arren, Varadero guztiak dira turistentzat. Varadero turismora zuzendua dago (hotelak, tenis pistak, golf zelaiak, pistinak...) eta, gainera, diskoteketara turistak eta langileak bakarrik sar daitezke.

Anekdotarik ere ez zaigu falta izan. Egun batean bi kubarrekin elkartu eta egun osoa beraiekin ibili ginen. Ez ziguten dirurik eskatu baina guk zerbait ematea pentsatu genuen eta gauerako geratu ginen. Nik boltsa batean beraientzat erropa neraman. Orduan, polizia pare bat gerturatu zitzaigun eta poltsa kenduz bi kubarrak ko-

misaldegira eraman zituzten. Guri ez ziguten ezertxo egin, turista oso babes-tua dago Kuban. Beste egun batean bazkaltzera joan ginen taberna batera eta lau ordu tardatu zuten entsalada mistoa eta oilaskoa ateratzeko. Kubako taberna gehienak gobernuarenak dira eta oso gutxi ordaintzen diete langileei. Horregatik, tabernariei ez zaie axola tabernan jende gutxiagok bazkaltzea. Nahiago dute turistak bazkaldu eta dollarrak jasotzea. Gainera, bizimodua oso lasaia da, ez dute batere presarik ezertarako eta ez dago estres beldurrik. Blokeoa dela-eta, denda eta tabernetan gauza asko falta zaizkie. Halere, arroza eta baba gorriak sekula ez dira falta izaten. Oso ondo jaten da Kuban.

Oso gustura ibili naiz eta badut bueltatzeko asmoa. Halere, uste dut Kuba gazteentzat dela, batez ere “abentura” bizi nahi dutenentzat. Honen adibide, bueltan nentorrela hegazkinean senar-emazte bat neukan alboan eta emakumeak behintzat ez zeukan itzultzeko asmo handirik”.

Europar zehar 2 CV batean

Gure hurrengo protagonistek oso bestelako bidaia egin zuten. Izan ere, Eduardo Zubiaurrek eta Igor Iraolagoitiak 2 CV zahar bat hartu eta abentura bizitzera joatea erabaki zuten. Hona hemen kontaktu digutena: “Aspalditik



“Kuban ez dute estresa ezagutzen. Entsalada eta oilaskoa jateko lau ordu egon behar izan genuen zain”.



Eduardo eta Igor "Dos caballos" batean abiatu ziren eta European zehar hilabete pasa zuten.

rari begira hasi dira hurrengo abentura pentsatzen, "gustatuko litzaiguke autobus bat erosi, konpondu, margotu eta kuadrila handi bat abiatzea baina hori nahiko zaila izango da. Litekeena da beste auto

bat erosi, konpondu eta Afrika zeharkatzea. Gero han kotxea salduko genuke". Abantaila bat dute, Igor mekanikoa da lanbidez eta autorik eskasena konpontzeko kapaza da. Eduardok, berriz, ez du lanik egiten. Hortaz, "aurten motorra saldu behar izan dut oporretan joateko eta orain frenorik gabeko bizikleta batean nabil".

Dolomitak

Rosa M. Arriola eta Jabier Ezenarrok aurtengo uda Dolomitetan pasa dute. Arrazoia? Jabier txirrindularitza zalea da eta Italiako Giroan txirrindula-

riek igotzen dituzten mendiak ikusi nahi zituen zuzenean. Bikote honek berrogei menditik gora igo ditu, autoz hori bai. "Hala ere, ez da lehenengo urtea udako oporrak mendateak igoz pasatzen duguna. Iaz, esaterako, Frantzia izan ginen eta Tourrean igotzen dituzten mendiak igo genituen. Aurten, beraz, abuztu erdi aldera beharrezko ekipaia hartu, autoan sartu eta Italiarantz abiatu ginen. Guztira 5.300 km. egin ditugu eta horietatik 900 km. lehen egunean bertan. Izoard izeneko mendatea igo zuten bigarren egunean. Izugarri polita da eta puntan bukatzen diren haitz zorrotzak ditu. Gainera, Coppi eta Bobet txirrindulariei eskainitako monumento bat dago. Luganon ere izan ginen, Suitzan, eta 1996an Munduko Txirrindulari Txapelketan egin zen ibilbidea autoz egin genuen, bidea erakutsi zigun motorzale bati jarraiki. Gogorre-na "Mortiolo" mendatea iruditu zitzaizgun. Malda latzak eta bide estuak ditu. "Marmolada" eta "Lavaredo" ere nahiko gogorak ziren. "Stelvio" mendatea ikusgarria da, herradurazko 48 erre-bueltarekin. "Paso sella" mendatiak, berriz, zona batzuk asfaltatu ere egin

gabe ditu eta beste mendi batzuetan trenbidia zegoen eta kalekoa bezalako trenak igotzen da 2.300 m.ko altuerara. Azpimarratzekoa da ingurugiroarekiko errespetua, leku guztia oso garbiak baitaude. Frantzia, Italia eta Suitzan ezezik Liechtenstein eta Austria ere izan ginen. Autoan ordu asko pasa ditugu baina merezi izan du, ze paisaia zoragarria zen eta eguraldiak ere lagundu zuen, nahiz eta txingorrik ere ikusi genuen. 13 km. baino gehiagoko tunela ere pasatu genuen eta lautadetan sagarrondo eta madariondo ugari zegoen". Ikusita koaren erakusgarri makina bat postal erakutsi zizkiguten.

geneukan pentsatuta bidaia hau egitea. Iaz 2 CV autoa eskuratu genuen eta bost hilabete behar izan genituen autoa behar bezala prestatzeko. 6.000 km. egin genituen gure kotxean. Mendarotik atera ginen eta Irundik Toloussera jo genuen, azkenean Orleans-eraino iritsi arte. Han pasatu genuen lehen gaua. Hurrengo egunetan Paris ingurutik Belgikara joan ginen. Brujas ezagutu genuen eta handik Holandarantz hartu genuen, Rotterdam aldetik Amsterdam-eraino. Ondoren Alemania aldetik Oihan Beltza zeharkatu genuen eta gero Suitzara joan ginen, Zurichera. Handik Austriara pasa ginen eta gero, Dolomiten erditik Veneziara iritsi ginen. Bi egun pasa genituen Italiako hiri zoragarrian. Etxera bueltatzen hasi beharra genuen eta kostaldetik San Remo, Genova eta Montecarlo zeharkatu genituen, azkenik Geronara iritsi arte. Hiru egun pasa genituen Geronan eta handik zuzenean Mendarora berriz. Oso harrera ona izan dugu toki guztietan, izan ere jendea harrিতuta geratzen zen 2 CV batean gindoazela ikustean eta jendeak agurtu egiten genituen". Guztira ia hilabete egin zuten hara eta hona, "abiadura handia ezin genuenez hartu, 70 km. orduko gutxi gora behera, paisaia ikusteko aukera ematen du". Datorren uda-

Jabier Ezenarro txirrindularitzan zaletua da eta Giroan pasatzen dituzten mendateak ezagutu nahi izan zituen.



❖ Euskal hilabetea

Euskara Batzordeak gazte eta helduei zuzendutako euskarazko ekintzak antolatu ditu. Ekintzak urrian zehar izango dira.

Urriak 3, larunbata

22:30 Debako Goaz antzerki taldearen "Geure buruari kuku" obra frontoian.

Urriak 9, ostirala

22:30 Txirristakan Jose Mari Karrere ipuin kontalaria arituko da.

Urriak 10, larunbata

22:30 Trinidadeko urjauzian, Mikel Urdangarin kantautorea.

Urriak 16, ostirala

22:30 Ormolan, Txan Handia magoa.

Urriak 17, larunbata

22:30 Arboletan, Jose Mari Karrere ipuin kontalaria.

❖ Euskaltegira joateagatik dirulaguntzak

Mendaroko Udaleko Euskara Batzordeak 1998-99 ikasturtean zehar euskara ikasiko duten mendarotar helduei dirulaguntza eskainiko die. Ondoko baldintzak bete beharko dira:

- Mendaroko biztanlea izatea.
- Gutxieneko asistentzia: %90a.
- Ikastaroa amaitzea.
- Matrikulatutako ikastaroaren azterketa guztiak eginak izatea.

Dirulaguntzak ikasturte amaieran emango dira. Ikasle, langabetu eta jubilatuei matrikularen %75a itzuliko zaie eta lanean daudenei matrikularen erdia. Horrez gain, ikaslea klasera joaten den egun bakoitzeko 110 pta. emago zaizkio bidaiarengatik.

Eskaerak aurkezteko epea 1999ko irailaren 10ean amaituko da eta ikasle bakoitzak ezingo du ikastaro bat baino gehiagorako laguntza eskatu.

❖ Kilometroak 98

Euskara Batzordeak Kilometroak jaira joateko autobusa jarri du. Aurten Tolosaldean izango da urriaren 4an eta autobusa Estaziotik aterako da goizeko 9:00etan. Txartelak 700 pta. balio du eta Ormola, Txirristaka, Leku Ona eta Udaletxean eskura daiteke.

Aitor Etxeberria pintorea Deban eta Bergaran saritua



Uda partean pintura lehiaketa ugari antolatzen dira gure herrietan. Irailean, adibidez, Debako eta Bergarako Margo Lehiaketak izan ziren eta bietan Aitor Etxeberria mendarotarrak sariak jaso zituen. Deban irabazlea izan zen eta Bergaran hirugarren sailkatu zen.

Beraz, zorionak Aitorri!

Mendaro izeneko kalea Cadiz-ko Chiclana de la Fronteran



Aurtengo abuztuan Cadizen oportretan izan den irakurle batek gauza bitxi bat ikusi zuen. Izan ere, Chiclana de la Frontera herria bisitatzen ari zirela, bertako kale batek Mendaro izena zeukala konturatu ziren. Argazki kamera autotik hartu eta erretratua atera

zioten plakari. Mendarotarrak unibertsalak omen gara, itxuraz eta nonahi agertzen dira gure herriaren izena daramaten kaleak eta pertsonak.

Marmitako lehiaketa

Mendaroko Jubilatuen Elkarteak antolatuta, joan den ostegunean Deba Beheko jublatu-etxeen arteko Marmitako Lehiaketa egin zen Mendaroko frontoian. 9 elkartek hartu zuten parte, Eibarko 4k eta Soraluze, Elgoibar, Deba, Mutriku eta Mendaroko banak. Irabazleak Elgoibarko ordezkariak izan ziren eta Gipuzkoako txapelketan hartuko dute parte.



egafra

Lizarrakoa da jaiotzez baina 20 urte zituela lan kontuengatik Elgoibarretorri eta bertan geratu zen, "elgoibartarrez maitemindu nintzen haisieran eta berehala ezagutu nuen emaztea, herriko emakumerik politena". Gaur egun Eibarren bizi da. Antonio Irisarrik 66 urte ditu eta betidanik izan du argazkilaritzarekiko afizioa. Arrazoi hori dela eta ekarri dugu gure artera.

ANTONIO

"Argazki kamera da nire makulua"

– Elgoibarrez maiteminduzinen, beraz.

- Bai, jendea hasieran oso itxia da baina gero dena ematen dute, jende zoragarria da. Eibartarrak hasieratik dira irekiak eta horregatik maitemindu nintzen beraietaz. Gipuzkoa osoaz maitemindu nintzen.

– Bost seme-alaba dituzu. Beraiei zor diezu argazkilaritzarekiko afizioa, ezta?

- Baietz esan daiteke. Izan ere, seme-alabei atera nizkien nire lehen argazkiak. Urte asko daramatzat argazkiak egiten baina oso argazkilari txarra naiz. Argazkiak ateratzea ez da kamara hartu eta kito, artea dago horren atzean.

– Zure kontura ikasi al zenuen?

- Hasieran bai, baina gero Donostiako Argazkilaritza Elkartekoak etorri ziren ikastaro bat ematera, Agirresarobe anaiak ere tartean

ziren eta hortxe hasi nintzen, guztiengandik ikasten.

– Denbora asko eskaintzen al diozu argazkilaritzari?

- Gaur egun bai. Nik beti esaten dut nire bizitzaren oinarria tripode bat dela eta tripode horrek hiru hanka dituela: familia, euskara eta argazkilaritza. Hirurak beharrezkoak ditut.

– 40 urte argazkilaritzan eta errekonozimendu oroigarri bat.

- Donostiako Argazkilaritza Elkartek martxoan eman zidan baina nik ez nuen merezi, esan izan balute adiskide ona izateagatik eskainia zela, tira! Baina nik argazkilaritzarengatik ez dut ezer egin!

– Adiskide onak egin dituzu, beraz.

- Bai, komeni zitzaidan oso argazkilari txarra naizelako eta ez nuen nahi era-

kusketa bat antolatu eta jendeak tomateak botatzerik. Nahiz eta argazkiak txarrak izan, gutxienez nitaz inpresio ona izan zezatela, ez?

– Emakume biluziak erretratazea atsegin duzu, ezta?

- Bai, emakumea da mundu honetan dagoen gauzarik ederrena. Ederra da estetikoki, ederra gizarte honetan aurrera eraman behar duen borrokarengatik, ederra ama izateko duen pribilegioarengatik... Iradokitzea gustatzen zait, formak erakustea, ez gorputza bere osotasunean erakustea.

– Zer nahiago duzu, bizitza objetiboaren edo begiaren atzetik ikustea?

- Begiekin ikustea gustatzen zait baina baita objetiboaren bidez une hori izoztea ere. Argazkilaritzari esker bizitza honetan edertasuna edozein bazterretan dagoela ikasi dut.

– Argazki guztiak gordetzen al dituzu?


- Ez, gehienak bota egiten ditut, ze oso txarrak dira. Gainera, niri ez zait gustatzen atzera begiratzea. Pasatakoa pasa da, aurrera begiratu behar da beti.

– Erakusketa bat prestatzen zabilta, ez?

- Bai, "Hurbilketak" izenekoa. Behin, etxean nongoela konturatu nintzen eguzki izpiak leihotik sartzean kolore eta argi oso politak sortzen zituztela. Beira zatiak eguzkitan jarriz eta plano desberdinak hartuz ari naiz lanean. Urteekin uste dut sormena piztu zaidala.

– Antonio eta argazki-kamera bat al dira?

- Argazki kamararekin ateratzen naiz beti etxetik. Argazki kamera da nire makulua.



Elgoibartik

Bartzelonara



Jñaki Uribe

Jñaki injin-nerua da eta langabezia handia zegoe-la ikusita, 94an, Comett bekari esker, Grupo Danobat-ek Paris ondoan, Boulogne-n zuen delegazioan

hasi zen lanean. "Urte honetan frantse-sa ikasi nuen eta gerora egin dudan lanaren oinarria izan da". 95ean, auto-mozioko piezak egiten dituen Gernika-ko Mayer enpresan hasi zen lanean, be-ti ere iraupen mugatuko kontratupean. "Hilabete eta erdi ondoren, Ginebra ondoko herri batera bidali ninduten Citroen Xsara autorako piezak egitera. 6 hilabete eman nituen eta 95eko aben-duan Velizy-Citroeneko zentro tekni-koan hasi nintzen proiektista lanean". Hurrengo urtean Renault-eko zentroan hasi zen. Gernikara bueltan, 2-3 hilabe-te eman zituen baina giroz eta lanez al-datzeo gogoia zuenez, Kataluinara jo-an zen. Zanini enpresan topatu zuen lana, automozio sektorean. Gaur egun Bartzelona ondoan bizi da eta sarritan bidaiatzen du Parisera eta Lyonera, Renault, Peugeot eta Citroen auto etxeen errepresentazioa darama eta. "Ardura handiko lana da eta hizkuntzak erabilt-zeko aukera ematen dit". Boulogne-n bizi zenean neska frantses bat ezagutu zuen eta orain ezkontzekotan daude. "Oso gustura bizi naiz Bartzelonan. Kultura tolerantetagoa da, askatasun gehiago daukat. Katalanez bizi dira ar-lo guztietan, kalean, telebistan, egun-karrietan,...Elgoibarrera ez naiz apenas joaten, hemen hobeto bizi naiz eta".



VIAJES BILBAO EXPRESS

bidaia agentziak babestutako atala

Foruen plaza, 3
Tel: 943 74 39 12

G O G O R A T U Z

Andres Victoriano Alberdi Baskaran

(1909-1961)



- 1909ko azaroaren 10ean jaio zen San Frantzisko kalean. 7 anai-arrebatik gazteena zen.
- Gazte sasoi Madalenako kuadrilarekin pasatu zuen.
- 16 urterekin, Gernikara joan zen anaia ba- tekin, 'Astra' pistolak egiten zituen lantegi- ra. Laister egin zen bertakoa.
- Gernikan bizi zela 3 aldiz izan zen esku pilotako Bizkaiko txapelduna afizionatue- tan. 3 kopa irabazi zituen eta herri honetako batzokian geratu ziren.
- Ehiza ere izugarri gustatzen zitzaion. Bazuen anekdota bat: behin, 'Brazo de Gernika' deiot- zen zioten ibaiaren inguruan ehizan zebilela, eskopeta lepoan hartuta, goarda bat atzetik zeukan segika. Konturatu zenean, Victorianok tximista batek bezala pasatu zuen ibaia. Or- duan goitizena jarri zioten: hegazkin aleman bizkor baten izena, "Lindberg", hain zuzen.
- 1936ko gerran egon zen eta Santander, Bilbo eta Galiziako gartzeletan pasatu zuen denboraldi bat.
- Gerra ostean, Gernikako Isabel González-ekin ezkondu zen eta seme bat eduki zuten.
- Geroago Elgoibarrera etorri eta Sigman hasi zen lanean. Azken urteak praktikante lanean eman zituen lantegi honetan. Lan bera egiten zuen C.D. Elgoibarrekin Lerungo zelaian.
- Oso gogokoak zituen ehiza, esku pilota eta zezenak. Zenbait herritan toreatzen ibili zen eta bi edo hiru zezen hil zituen.
- "Patxillo" izenez zen ezaguna. Bere aitona- rari deitzen zioten horrela.
- Herrian pilota partidu batzuk jokatu zituen. Atsegina, borondatea, popularra eta lagun artekoa zen. Abestea ere gogoko zuen.
- Sasoi gordina zuela, 1961eko urriaren 28an hil zen 52 urterekin.

Juanito Gorostiza

**HERRI-GAIN
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa, 4
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR

Truk

Truk

San Frantzisko, 27
Tel. 943 74 26 21



ste honetako erretratuia **Iñaki Alberdik** laga digu eta duela 15 bat urte ateratakoa da Pilar ikastetxean. Argazkikoak nesken eskubaloi taldeko kideak dira, Plaza Txikian makina bat partidu jokatuak. Askok gogoratuko duzue garai hartan eskolarteko jokoei zegozkien partiduak Plaza Txikian jokatzen zirela. Talde honek eskolarteko partidu ugari irabazi zituen eta Elgoibarko eskubaloi talderik onenetarikoa izan zen. Hona hemen taldekideen izen-abizenak:

Txomin entrenatzailea, **Garbiñe Alberdi**, **M. Carmen Moreno**, **Ana González** (†), **Montse Bruno**, **M. Jesus Izagirre** eta **Txelo Quintano**.

Makurtuta: **Nieves**, **Ana Lidia Pinacho**, **Maite Lobete**, **Arantza Arrieta** eta **Isa Picon**.



arkizano

San Franzisko 12-14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



URKIDI

Kalamua, 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
943 74 18 91

AHOLKULARITZA
ITT ERCOS ASEGURROAK


... esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!!

**etor zaitez
hitz egiten
irakurtzen edo
idazten ikastera
euskaltegira**

Plaza Txikia, 3 • Tel: 943 74 13 32

**Ikasle eta langabetuek
matrikula erdia**

“Sariak jasotzia, selekziuan egotia,... ez naban espero”



Unai Arrieta

- **Adina:** 17 urte
- **Zer ari zara ikasten?**
LOGSEko 2. maila.
- **Eskubaloia ez balitz, zein kirol egitea nahiko zenuke?**
Kirol guztiak gustatzen jataz. Atletismoa ein izan dot, futbolian ere ibili izan naiz, eta mendixa, eskalada,... izugarri gustatzen jataz.

- **Bigarren denboraldia Arraten.**
- Bai, iaz Arratera jun nitzanian nahiko txokantia izan zan. Badakizu nora jun zeran eta zer eskatuko dizuen.

- **Ordura artekoarekin zerikusirik ez.**
- Beste planteamendu bat da. Entrenadorea profesionala da, bera lanera juten da eta guri ikaragarri exijitzen digu. Astian lau ordu entrenatzen ditzugu eta iaztik hona alde haundixa igarri dot.

- **Adibidez?** - Hasieran fisikoki batez ere. Elgoibarren nauanian Arrate eta holako ekipuetan eotia eskura ez dauan zeozer bezela ikusten dozu eta ezin dozu imajinatu zer dan topauko dozuna. Gainera hasieratik jarri ninduten titular. Lelengo minutu batzuk jokatzeko hasi nitzan. Gero, taldekide bat lesionatu ein zan eta gero eta minutu gehixoko jokatzeko nitxun, gainera oso postu diferentietan. Azkenerako asko ikasi eta mejozatu dozula konturatzen zera.

- **Gainera liga irabazi zenuten.** - Bai. Denboraldi oso ona ein gendun eta Espainiako txapelketara ere iritsi ginan.

- **Sariak ere jaso dituzu.** - Sorpresa haundixa izan zan. Gauza gehixegi izan dia urtebetian. Espainiako txapelketan bi fase daude eta lelengo fasian jokalaria onenari ematen zaion saria jaso naban. Euskadiko selekzioan jokatu naban eta denboraldi amaieran Gipuzkoako Federaziua jokalaria onena aukeratu nindun. Gure ekipua ere, jubilenak, sari bat jaso zaban Federaziotik. Urte ezin hobia izan da. Ondiok ez dot pasatu jatan guztia asimilatu, batez ere holakorik ez nabalako espero.

- **Eta aurten?** - Pretenporadia oso gogorra izan da. Uztaile osua eta abuztuko azken hiru astiak pasatu ditzugu entrenatzen eta klubak esperantza haundixa daka gure taldean. Arraten inportantzia haundixa ematen jakue beheko taldeiei eta datorren urtean gure ekipoko batzuk goiko taldera pasauko dia. Aurten gainera, ez dao jokalaria atzerritarrik. Horregatik hutsune hoiek beheko taldekuek bete beharko ditzugu.

- **Beste elgoibartar bat ere zure taldean dago.** - Bai, Ander Goikoetxea. Oin arte Bidasoan eon da baina Arratek lekua eskaini zion eta nahixoa izan dau etortzia. Nik ere nahixoa dot ekipo berian egotia. Lehenago ere Elgoibarren elkarrekin eon ginan eta gainera lagunak gera.

- **Hala ere, entrenatzaileak atzerritarrik dira.** - Bai gure entrenatzailea bai goiko taldekua ere atzerritarrik diaz. Profesionalak dia, profesional onak eta logikua danez, guri ere lan serioa exijitzen digute.

- **Sakrifizio handia izan da. Merezial du?** - Dudarik gabe. Gauza asko laga bihar ditzugu baztarrian. Alde bateatik, dantzia laga bihar izan dot. Astian zihar ez daukat beste ezertarako astirik geratzen. Ateburuetan ere, partidua daozenez, erretzerik ez dao eta lagunak ere gero eta gitxio ikusten ditzut. Baina argi dao nere kasuan behintzat merezi izan dabala.

- **Aurtengo denboraldirako zer esperantzia dakagu.** - Gauzak ondo jungo dian esperantzia dakagu. Lan haundixa ein dou eta espektatibak onenak diaz.

KIROL ALBISTEAK

● Eskubaloiko 'Hiruko Txapelketa'

Elgoibarko Eskubaloi Elkarteak antolatutako 'Hiruko Txapelketa' ren (triangularra) lehen fasea jokatu zen joan den zapatuan Olaizaga kiroldegian. Hiruko Txapelketan jubencil eta kadete neskek jokatu zuten, eta aurten sortu den senior nesken taldeak lagunarteko partidua jokatu zuen Oiarso taldearen kontra. Partidua 22ko berdinketarekin amaitu zen. Jubencil mailan Ermua izan zen txapelduna eta kadete mailan, berriz, Pagoaga Elgoibar taldea nagusitu zen. Asteburuan mutilen txanda izango da, jubencil, kadete eta senior kategoriako partidua jokatu direlarik.

● Monopatinean ibiltzeko pista jarriko da Urasandin

Udal Kirol Patronatuko zuzendariaren esanetan, denbora gutxi barru, urriaren erdi aldera, Elgoibarko Udalak monopatinean ibiltzeko pista jarriko du Urasandin auzoan. 'Half pipe tripe' mota pista izango da eta Herri Eskolaren gainean dagoen zelaian kokatuko da. "Erabili nahi duenak bertara hurbildu besterik ez du".

Futbola, 98/99 denboraldia

1. erregionala eta 1. mailako jubenilak

1. erregionala



A tzean, ezkerretik eskumara: Ruben Díez, Javi Guallar, Iñigo Loiola, Aitor Zubiaurre, Danel Fernández de Jauregi, Javi Eizagirre, Oscar Panizo, Jokin Garitano, Iker Polo, Xabi Elustondo eta Pedro Santiago entrenatzailea. Makurtuta: Andoni Ulazia ordezkaria, Manolo Ramos, Imanol Larrañaga, Antonio Moreno, Jose Manuel Fernández, Iñaki Laskurain, Gorka Domínguez, Julen Irizar eta Alberto Díez. Santi Carrascosa falta da argazkian.

1. erregionaleko taldeak partidu bakarra jokatu du. Deban izan zen norgehiagoka johan den zapatuan eta 1 eta 2 irabazi zioten Hamaikak Bat-i. Hasiera ona izan dute eta horrela segitzea espero dute. Izan ere, iaz berreskuratu zuten aurreko denboraldian galdutako kategoria. Aurten, beraz, 1. erregionaleko talde indartsuenen parean ibiltzeko moduko taldea dutela esan digu Pedro Santiago entrenatzaileak. "Jubeniletik etorritako jokalar asko daude, kalitate handikoak. Izan ere, hauetariko batzuk Haundirekin jokatzen ari dira. Hortaz, denboraldi polita egingo dugula pentsa daiteke".

1. jubenilak



A tzean, ezkerretik eskumara: Paul Luque, Xabi Rodriguez, Jaime Fernández, Iker Sanchez, Raul, David Garrido, Anton Mendizabal, Ruben eta Jose Manuel Fernández entrenatzailea. Makurtuta: Pedro de Almeida, Ernesto Vilariño, Imanol Calleja, Juan Miguel Abal, David Luque, Jose Mari, Juan Antonio Fernández eta Ibai. Argazkian falta direnak: Julen Zabala, Jon Angulo, Jon Larrañaga eta Alain Ayala.

1. mailako jubenilek ez dute hasiera ona izan ligan. Bi partidu jokatu dituzte eta biak galdu. Lehenengoan 6 eta 0 galdu zuten eta bigarrenean 1 eta 2. Jose Manuel Fernández da entrenatzailea eta berak esan digunez, "aurten talde osoa da berria. Mutiko asko kadete kategoriatik datoz eta beste asko berriak dira futbol munduan. Normala da hasiera kaxkarra izatea. Dena den, ez zaigu gogorik falta eta hori da azken finean, inportanteena".

1998-IX-25

EMAITZAK

Futbola

Haundi 2 - Gernika 1
Hamaika Bat 1 - Elgoibar 2 (1. erreg.)
Romo 3 - Elgoibar 1 (L. N. jub.)
Elgoibar 1 - Munibe 2 (1. jub.)
Elgoibar 2 - Eibar 9 (Kadeteak)

Eskubaloia

Hiruko Txapelketa

Jubenil neskak:

Unceta Elg. 16 - Oiarso 12

Oiarso 12 - Ermua 16

Unceta Elg. 9 - Ermua 13

Kadete neskak:

Pagoaga Elg. 14 - Oiarso 11

Oiarso 11 - Ermua 10

Pagoaga Elg. 15 - Ermua 4

Lagunarteko Txapelketa

Elgoibar 22 - Oiarso 22 (Senior nes.)

Idarraga Kafeak 2. sarria

Haundiko jokalar erregularrena 98/99

JOKALARIA..... PUNTUAK

1- Beitia 9

2- Txasio 7

3- Igor 7

4- Loren 5

5- G. Leonardo 5

6- Eneko 5

7- Elkoro 4

8- Muguruza 3

9- Madina 3

10- Caro 3

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 26

16:00 Elgoibar - Soraluze (1. erreg.)

18:00 Pedrusko - Urola (1. erreg.)

Igandea, 27

12:00 Elgoibar - S. Herrera (L. N. jub.)

16:30 Elgoibar - Bergara (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 26

Hiruko txapelketa

16:00 Almen-Elgoibar-Arrate (Jub. mut.)

Lagunarteko Txapelketa

19:15 Elgoibar - Arrate (Senior mut.)

Igandea, 27

Hiruko txapelketa

10:30 Almen-Elgoibar-Arrate (Kad. mut.)

Minnie the Moocher

Chicago, 40. harmakada, Lucky Lucciano edo Capone bezalako izenak soberan entzuten ziren garaian, jendeak 'swing'aren erritmoean gauzatzen zituen bere eginbeharrak. Dantzaldiek, alkoholak barra-barra eta betidanik zirrara handia sortu duten hainbat elementu garai bat markatu zuten. 60 urte beranduago eta musika jasaten ari den originaltasun falta ikusita, ez da harritzekoa denboramakina baten barruan bageunde bezala sentitzea, eta **CHERRY POPPIN' DADDIES** bezalako taldeak sortzea. Cab Calloway edo Louis Primaren orkestak bailiran agertzen zaizkigu, 'Big Band' hitzaren esanahi guztiak betetzen dituztelarik. Estatu Batuetako talde honek garai hartako estetika guztia gordetzen du, filmeetan sarritan ikusi dugun garaia. 'Swing' musika eduki zuen erakargarritasuna erakusten digute disko osoan zehar, kalitate handiko musikariak direla argi utzirik. Gustatuko litzaidake 'Warped Tour'ean egon diren 'neo punk' guzti horien aurpegiak ikustea gangster batzuk eskenatokiaren jabe egin direla konturatzen direnean.

Iban Urizar eta Julen II



Tanttakak azken lana taularatuko du urriaren 2an Herriko Antzokian

“Shakespeare Osoa (gutxi gorabehera)” da antzezlanaren izenburua

Udal Kultura Sailaren eskutik, datorren ostiralean, urriak 2, Euskal Herriko antzetzalde profesional onenatariko baten azken lana ikusteko aukera izango da gaueko 22:30ean hasita. “Shakespeare osoa (gutxi gorabehera)” da antzezlanaren izenburua. Protagonisten papera egiten dutenak telebistako hainbat telesailetan ikusi izan ditugun aktoreak dira.



Joseba Apaolaza, Kike Hormaza eta Nika Lizeaga dira antzezlanaren hiru aktoreak.

Hiru dira Tanttakaren azken lan honetako aktore protagonistak: Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Niko Lizeaga. Horren izenburu bitxia duen antzezlanak Adam Long, D. Singer eta J. Winfield idazleen lanaren itzulpena da. Antzezlanak ordu eta erdiko iraupena dauka eta hasieratik bukaerara arte ikusleak erakartzea lortzen du, umore ikutu finari esker.

Sinopsia

Nor da William Shakespeare? Londresen bizi den jaun lodikote bat, Kenneth Branah eta Mel Gibsonentzat gidoiak idazten dituen? Antzezlan honetako pertsonaiek inkesta bat egiten dute eta erantzuna, ia aho batez, baiezkoa izango da. Arazo tamalgari honi konponbidea bilatzeko, maisu ingelesaren goi mailako kalitatea ezagutzeko asmotan, argialetxe bat sortzea erabakitzen dute. Euren ikuspuntutik, Wi-

lliam Shakespearearen antologia berezi hau osatzen duten antzezlanak zertan datzan azaltzen dute. Protagonistek Shakespeareari buruz dakitena azaldu nahi diote ikusleagoari eta bide batez, ahal badute behintzat, libururen bat saldu.

Tanttaka Teatroak 1983an eman zion hasiera bere jarduerari profesionalari. Hamabost urte hauetan 15 lan ekoiztu edo produzitu dituzte, estilo oso desberdinak landuz, besteak beste, “Agur Eire Agur” drama naturalista, “Flaminio” txantxaopera, “Zilbor estea” dantza, “Kontuz, maite zaitut” musikala eta “Hansel eta Gretel bezala” egokitzen liriakoa. Estilo aniztasun honetan datza, hain zuzen ere, teatroa ulertzeko duten modua: taldea ikuskizunari egokitzen zaio, eta ez alderantziz. “Denak Errudun”, “Umekeriak” eta “Florida Pensil” dira azken aldiak taularatu dituzten ikuskizunak. “Shakespeare Osoa (gutxi gorabehera)”, Tanttakaren azken lana da.





Council programa :

“Council” programari esker ikasleek EEBBetan lan egiteko bisatua eskuratzen dute. Hori da, hain zuzen ere, Gestio Eskolako 12 ikaslek aurtengo udan egin dutena. 21 urteko neska-mutil hauek Ocean City izeneko herri batean egon dira, Maryland estatuan, eta hango Atrakzio Parke batean egin dute lan. Amaia Txurrukak eta Ion Urbietak kontatu digute bi hilabete eta erdi hauetan Ameriketara bizi izandakoa.

- Elgoibartik New York-era.

- Bai. Aukeria dakazu hemen zaudela lana topatzeko baina gu ezer gabe jun ginan. Lehenengo gaua New York-en pasatzen dozu eta han erabakitzen dau bakoitzak ze zonatarra nahi daban jun. Gu klaseko 12 jun ginan eta danak erabaki genduan Maryland-era jutia, Ocean City-ra. Aurretik esan ziguten zona onena zala lana lortzeko eta gainera ambientia egoten dala, ze turistikua da.

- Atrakzio Parke batean egin duzue lan, ezta?

- Bai. 30 barraka zeuden eta batzuk dendetan egon zian, beste batzuk helatuak saltzen, gu barraketan egon ginan... Egunero aldatzen gendun barrakaz eta gure arduria zan barrakian funtzionamendua, batzuetan fitxak batu, bestietan umiak barraketan jarri eta zaindu...

- Zenbat ordu egiten zenuten lan?

- Astian 60 ordu eta egun bat libre zaka-gun. Ordua 750pta.

ordaintzen ziguten, oso gitxi, baina bertan etxia zakaben eta normalian baino merkio jartzen ziguten. Alde horretatik lotuta geunden eta hasieran, aldatzia pentsatu gendun arren, azkenian han geratu ginan.

- Zein asmorekin joan zineten?

- Batez ere uda ondo pasatzia baina modu diferente batian, eta EEBBak ezagutzeko aukeriakin.

- Eta ingelesa, ikasi al duzue?

- Piskat baina gitxi. Batez ere belarrixa itxen dozu baina, gero, gure artian ibiltzen ginan normalian, nahiz eta Council programiakin mundu osoko jendia zauan, Malasiakuak ere.

- Nolako zen eguna?

- Goizian plaiara juten ginan batzutan eta gero 13:00ak aldera lanian hasten ginan, gaueko 12:00ak arte. Lanetik urtendakuan juten ginan zeozer hartzera baina tabernak 2:00etan itxizten zitxuen. Libre zakagun eguna gehixo urtetzeko eta juergak itxeko aprobetxatzen gendun. Diskoteka ikusgarri-

xak ere badaude eta behintzat hemen bezelako “bakalao” musikarik ez dabe jartzen.

- Azken hamar egunak turismoa egiteko aprobetxatu zenituzten.

- Bai. Lanian egon ginanian egun batian Washington-era jun ginan. Gero, bi furgoneta alkilau genitxun eta Niagarako kataratak, Toronto, Montreal, Boston eta New York ezagutu genitxun.

- Amerika pelikuletan ikusten den bezalakoa al da?

- New York bai baina pistolarik ez gendun ikusi! Bueno, egun batian denzio bat tokau jakun parian eta nahiko ikusgarrixa izan zan. Beste behin lapurtzen saiatu zian beltz batzuk. Segitxuan igartzen jakun turistak giñala, gure argazki kamarekin, danak taldian, erosketen boltsekin...

- Berriz joateko asmoarekin, beraz.

- Bai, datorren urtian ahal badou berriz jungo gera baina beste estatu batera.



**INTERESEKO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak 943 461111
Txanda hartzeko . . . 943 743354
Planning-a. 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
Gurutze Gorria. . . . 943 743864
Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
Odol Emaileak . . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
Kultura Zerbitzua . . . 943 742158
Mendaroko Udala 943 756100
Ongizate zerbitzua 943741008
Udaletxea 943 741050
Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
Kiroldegia 943 744415
Kontsumo Bulegoa 943 743088
Liburutegia 943 743525
Musika Eskola. 943 742145
Mintxeta 943 744315
Parrokia 943 740842
Postetxea 943 741547
Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola. 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre 943 74 02 67
Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80
Ikastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
El Diario Vasco 943 74 40 73
El Correo Español . . . 943 74 10 82
Egin 943 10 84 21
Zazpiki Irratia . . . 943 74 34 74

**25
ostirala**

**19:00 MARGO
ERAKUSKETA**
Egileak: Mari Carmen
Aguado eta Mila Madina
Kultur Etxean

**20:30 ERREALZALEEN
PEÑAREN BILERA**
Kultur Etxean
Urriaren 11ra arte

22:15 ZINEA
"Seis días y siete noches"

**22:30 FRIJOLO
TALDEAREN
KONTZERTUA**
Malape tabernan

**26
larunbata**

**9:00 EHIZA
TXAPELKETA**
Urnobitzan
Antolatzailea: La Unión
Elkartea

**12:00 ZAZPIKIREN
BILERA**
Ganbaran

**16:00 HIREN
ASANBLADA**
Kimetz Elkartearen

19:30-22:15 ZINEA
"Seis días y siete noches"

**27
igandea**

**9:00 'EGINGO DUGU'
EGUNERAKO
AUTOBUSA**
Irteera Plaza Handian
Antolatzailea: HB

**9:30 ALDERDI
EGUNERAKO
AUTOBUSA**
Irteera Plaza Handian
Antolatzailea: EAJ/PNVko
Uri Buru Batzarra

**10:00 DEBA ARROKO
HAURREN
PERRETXIKO
LEHIAKETA**
Plaza Handian
Antolatzailea: Karakate
Mikologia Elkartearen

16:30-19:30-22:15 ZINEA
"Seis días y siete noches"

**28
astelehena**

22:15 ZINEA
"Seis días y siete noches"

**2
ostirala**

**21:00 AFARI-
ERROMERIA
SALLOBENTEN**
Antolatzailea: Haritz
Dantzari Taldea

22:30 ANTZERKIA
Antzeztaldea:
Tanttaka Teatroa
Antzezlanak: "Shakespeare
osoa (gutxi gorabehera)"
Euskaraz
Herriko Antzokian

**21
HE
A**



Zuzendaria: Ivan Reitman.
Antzezleak: Harrison Ford,
Anne Heche.

Seis días y siete noches

Robin Monroe (Anne Heche) New York-eko emakumezkoen aldizkari bateko zuzendaria da. Bere senargaiarekin oporretan dagoela, Tahitira joan behar duela esaten diote. Horretarako hegazkin pilotu baten zerbitzuak kontratatzen ditu. Baina, bidaiaren ekaitza izango dute eta irla batean lurra hartu beharko dute. Hasieran, bien arteko harremana ez da oso ona. Hala ere, erreskatatu bitartean, elkarbizitzaren ikasi beharko dute.

SAN MIGELEKO JAIK

OSTIRALA, 25

20:00 Kanpai jotze eta txafliju jaurtiketa jaien hasiera iragarritz.

22:30 Dantza jaialdia Haritz Dantzari Taldearekin.

Ondoren, erromeria Kiñu taldearekin.

LARUNBATA, 26

22:30 Bertso saioa

Peñagarikano, Mendiluze, Euzkitze, Oihana Enbeita eta Irazurekin.

Ondoren, erromeria Luhartz taldearekin.

01:00 Bolo txapelketa.

Sariak:

1- Berrizko *Nekazariek* emandako *Sthill* motozerra.

2- 12.000 pta.

3- 8.000 pta.

4- 4.000 pta.

5- 2.000 pta.

6- Ustekabea.

Auzoko lehenarentzako garaikurra.

IGANDEA, 27

11:00 Meza

Ondoren, *Balzola Anaiak* trikitalariak.

12:00 Artzai txakur erakusketa

Partaideak:

Mikel Garaiar *Mendirekin* (Oiertzun).

Lius Garaiar *Turborekin* (Oiertzun).

Migel Aizpuru *Mendirekin* (Oiertzun).

Jon Osoro *Pintxorekin* (San Lorentzo).

Jose A. Arrillaga *Txikirekin* (San Migel).

Peio Segurola *Lagunekin* (Matxinbenta).

17:00 Idi demak Soarte, Lopategi eta Madarixako Ezkerrarekin.

22:00 Erromeria Balzola anaiekin.

ASTEARTEA, 29

11:30 Meza Nagusia.

Ondoren, Ziarda eta Mañukorta bertsolariak.

13:00 Auzoko bikoteen arteko

XV. Pilota Txapelketaren AZKEN partidua.

22:00 Erromeria *Maixa eta Itziar*ekin.

24:00 Txekorraren zozketa.

● Kilometroak 98ra joateko autobusa

Elgoibarko Izarrak autobusak antolatu ditu datorren urriaren 4an, igandea, Tolosan izango den Kilometroak 98 jaira joateko. Izena emateko 943 74 16 26ra deitu. Hona hemen autobusaren prezioak: 18 urtera artekoak eta bazkideak 700 pta. eta 18tik gorakoek 1.000 pta.

● Marrazketa artistiko ikastaroa

Egur Arte Tailerraren eskutik, urriaren 1etik 22ra bitartean, marrazketa artistiko ikastaroa izango da. 30 orduko ikastaroa izango da, aratsaldeko 18:00etatik 20:00ak bitarteko klaseak emango direlarik. Ikastaroan parte hartu nahi duenak Egur Arte Tailerrean (Ubitarte plaza, z/g) eman dezake izena lehen aipatutako orduetan.

● 'Frijolo' taldearen kontzertua Malapen

Frijolo musika taldeak kontzertua emango du gaur, hilak 25, gaueko 22:30etik aurrera *Malape* tabernan. *Frijolo* taldeko kide gehienak zarautarrak diren arren, tartean elgoibartar bat dago, Iban Urizar.

● Errealzaleen Peñaren lehen bilera

Gaur, hilak 25, arratsaldeko 20:30ean, Errealzaleen Peña osatzeko lehen bilera egingo da Kultur Etxean. Herriko errealzale orori bilerara joateko deia luzatu nahi diete antolatzaileek.

● Alderdi Egunerako autobusak

Elgoibarko EAJ/PNVko Uri Buru Batzarrak aditzera eman duenez, domekan, hilak 27, Gas-teizko Salburuan izango den Alderdi Egunerako autobusak antolatu dira. Jelkide eta lagun guztiei joateko gonbita luzatu nahi die. Irteera goizeko 9:30ean izango da Plaza Handian.

● Errosarioko jaietako afaria

Datorren urriaren 2an, ostirala, Errosario kaleko jaien barruan, afari herrikoia egingo da *Gabi* jatetxean gaueko 21:30ean. Hil honen 30a baino lehen eman daiteke izena jatetxean bertan edo Jesus Ezenarriori esanda. Menua ondorengoa da: arrain eta marisko zopa, redondoa saltsan garnizioarekin, ardoa, ura, kafea eta kopa. Prezioa 2.300 pta.koa da.

● Ehiza Xeheko Txapelketa Urnobotzan

La Unión Ehiza eta Arrantza Elkartek antolatuta, bihar, hilak 26, herrikoentzat eta bazkideentzat Ehiza Xeheko Txapelketa izango da Urnobotzan. Goizeko 9:00etan hasiko da txapelketa eta ordubete lehenago izen-emateak egin ahal izango dira ehizalekuan bertan. Inskripzioaren zenbatekoa 3.000 pta.koa da bazkideentzat eta 4.500 gainerakoentzat. Ehiztari bakoitzak Federazioko baimena eta epailea eraman beharko ditu.

● HBren asanblada zapatuan, hilak 26

Kimetz Elkartetik jakitera eman dutenez, bihar, hilak 26, asanblada izango da arratsaldeko 16:00etan ondorengo gaiak landuko direlarik: gaur egungo egoera politikoa eta hauteskundeak. Era berean, domekan, hilak 27, 'EGINGO DUGU' Eguna ospatuko da Altsasu-Urdiainen. Bertara joateko autobusa goizeko 9:00etan irtengo Plaza Handitik. Izena emateko ohiko lekuetara zuzendu.

T R A N D A R R

FARMAZIAK

Egunez Gaeuz

26 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)

27 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)

28 Escala Escala

29 Yudego Yudego

30 Etxeberria Etxeberria

1 Anduaga Anduaga

2 Yudego Yudego

3 Bidasolo Zabaleta

4 Bidasolo Zabaleta

ANDUAGA: Mendarozabal, 1
Garagarza. Tel: 75 61 42

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 75 16 38

ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

7 igandea Fotero

OHARRA: Merkatu Txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Mutila behar da mezulari lana egiteko. Gida baimenarekin. ☎ 943 74 40 54 (goizez)
- ◆ Sukalde montatzaileak behar dira. Esperientziarekin. ☎ 943 86 14 78
- ◆ Emakume bat behar dut etxeko lanak egiteko. ☎ 943 74 35 23 (gauetz)
- ◆ Pertsona bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizeko 7:00etan hasita. ☎ 943 74 39 43 (Gaueko 21:00etatik aurrera deitu)

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Esperientziarekin. ☎ 943 17 19 13
- ◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixo edo edadetuak zaintzeko, etxean edo/eta ospitalean, egunez nahiz gauetz. ☎ 943 74 27 78 (Itziar)
- ◆ Neska eskaintzen da umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. ☎ 943 75 62 40 (Estibaliz)
- ◆ Barne Merkataritzan diplomatutako neska langilea eskaintzen da Elgoibar eta inguruetan dendari lanean aritzeko. ☎ 943 74 10 09

Etxebizitzak

- ◆ Ikaslea naiz eta etxe bila nabil beste batzuekin partekatzen. ☎ 943 88 80 19
- ◆ Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio kalea) pisua osatzeko. ☎ 943 77 12 77
- ◆ Pisua daukat alokatzeko. Osoa edo gelaka klase partikularrak emateko. ☎ 943 74 12 75
- ◆ Logelak ditut alokatzeko. Ura-sandi kalean. ☎ 943 74 03 93 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Etxea saltzen da Santa Ana 8-2 zenbakian. Ganbara eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83 eta 74 18 34
- ◆ Apartamentua salgai Loredon. Altzariak ditu eta garaje itxia. Prezio interesgarria. ☎ 943 74 29 32
- ◆ Alokairuko etxean dagoen mutil batek laguna behar du partekatzen. ☎ 989 34 81 97 (Gaueko 21:00etatik aurrera).

Bestelakoak

- ◆ 4 hilabeteko katakumea oparitzen da. ☎ 943 74 44 73
- ◆ Bergaran 1948an jaiotakoan aforia izango da irailaren 26an gauko 21:30ean Lasa jatetxean. Aurretik meza izango da Santa Marina elizan. Afal ostean mariatxiekin dantzaldia izango da. Prezioa 8.500 pta. da eta **Kutxan** edo **Euskadiko Kutxako** zenbakian sartu behar da.
- ◆ Sehaska berria oparitzen da, zuriz tintatutako egurrezkoa. Seguritate baldintzak betetzen ditu. Koltxoirik gabe. ☎ 943 74 29 95
- ◆ Caritasek etxebizitza bat jatzeko denetik behar du. Premiazkoa da. Kotxesila bat ere behar da. ☎ 943 74 03 78/ 74 15 09/ 74 12 57
- ◆ Paparreko brotxea galdu dut. Erronbo forma dauka. Aurkitu duenak dei dezala **943 74 13 41ra** eguerdian.
- ◆ Katu ar bat oparitzen dut. Lau urte ditu. Jateko platera eta abarrek. ☎ 929 47 76 98
- ◆ Perikito berde bat galdu zait. Norbaitek topatu badu dei dezala, mesedez. ☎ 943 74 08 10
- ◆ Hiru-Iturri inguruan bastoi bat galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala. ☎ 943 74 15 09
- ◆ Urrezko pultsera bat galdu dut. Norbaitek topatu badu dei dezala **943 74 41 28** telefonora (gauetz).

Partikularrak

- ◆ Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 17 96
- ◆ LOGSE eta DBHko matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditut. ☎ 943 74 08 09/ 943 20 27 82 (Marian, gauetz)
- ◆ Dibujo teknikoko klaseak ematen ditut. ☎ 943 74 43 98 (Iñaki, Gauetz deitu)
- ◆ Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 13 34 (Andoni)
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 07 86
- ◆ Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 00 98
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. ☎ 943 75 50 35 (Imanol)

Garajeak

- ◆ Garaje bat daukat pista beltzean saltzeko edo alokatzeko. ☎ 943 74 19 55
- ◆ Garajea alokatzen da San Roke Sean. ☎ 943 74 11 61
- ◆ Garajea hartuko nuke alokairuan Urasandin. ☎ 943 74 17 01 (Aitor)
- ◆ Garajea saldu edo alokatzen da Juan Mugerza kalean. ☎ 943 74 12 04

Salerostetak

◆ SALDU ◆

- ◆ Beretta A304 Silver Lark repetidora saltzen dut. Berria eta garantiarekin. ☎ 943 74 02 09 (Gauetz, Alberto).
- ◆ Bulegorako altzariak saltzen ditut. Nahiko berriak. ☎ 943 19 21 28 (gauetz)
- ◆ Sukalde elektrikoa + butanozkoa saltzen dut. Altxairu inoxidableko plaka dauka. Thinsen marka. Nahiko berria. ☎ 943 74 03 37
- ◆ SS-AK matrikuladun Seat Marbella kotxea salgai. Egoera onean. Prezioa: 230.000 pta. ☎ 943 74 11 29
- ◆ Kitarra espainiarra saltzen dut. Berria, estrenatu gabe. ☎ 943 74 17 01 (Asier)
- ◆ Garbigailua saltzen dut. Fagor etxekoa. Prezioa hitz egitekotan. ☎ 943 74 39 75 (Arrate)

◆ EROSI ◆

- ◆ Trikitixa bat erosiko nuke. 3 edo 4 ahotsekoa. ☎ 943 75 61 83

Agurrak

- ◆ Zorionak **Iñaki Astiazaran** hilaren 30ean urteak beteko dituelako. San Bartolome Ikastolako 6. mailako ikasleen patetz. Ondo pasa eta segi hain txistoso!
- ◆ Zorionak **Miren Agirreri** hilaren 29an 11 urte beteko dituelako. San Bartolome Ikastolako 6. mailako partez.



◆ Zorionak **Lolito!** Aurten 29 urte. Baliteke zezoz berrixa hasia hemendik gitxira. Ondo aprobetxau! Zure lankide eta lagu-

Agurrak



◆ Zorionak **Aitor Aranzamendi** 8 urte bete dituelako. Familia osoaren partez.

◆ Zorionak **Ane Odriari** hilaren 27an 10 urte bete dituelako. Egun ona igaro dezazula familia osoaren partez.



◆ Zorionak **pareja!** Jende guztia irailako aldapa igo ezinik dabilen bitartean, zuek hor ibili zarete Venezuelako bazterrak ezagutze. Ondo egin dozu! Izan ere, ezkontzeak duen onena ezkon-bidaia dela esaten dute. Urte askotarako! Elgoibarko Izarrako lankideak.



◆ Zorionak **Itsaso Garitagoitieri** hilaren 19an 11 urte bete zituelako. Familia osoaren eta amama Maria eta Gregorioren partez.



◆ Zorionak **Leire Elizondori** bihar, hilak 26, 4 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez, bereziki Janire ahizparen partez.



◆ Zorionak **Lorea Riañori** gaur, hilak 25, 7 urte bete dituelako. Iosu, Esther eta Maria lehen-gusinen partez.



◆ Zorionak **Olatz Urbizuri** hilaren 22an 12 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Virginia Barriada Alonsori** zure 28. urtebetzean. Zure familiak ondo pasa dezazula opa dizu, batez





Oso ondo egin behar dira
autoak 5 urteko garantia

Orain Nissan-ek, Excellent 3+2 garantia 5 urterako programa berriaren bidez, zure autoaren garantia 3 urtetik 5era igotzeko aukera ematen dizu.

Kostu minimoarekin, bost urtez gozatu ahal izango duzu Nissan-en garantiaz, edozer gertatuta ere.

Ikusten duzu. Nissan-en oso konbentzitura gaude gure autoak ondo egiten ditugunaz, eta mundu guztia bere buruari urteak kentzen dabilen bitartean guk jarri egiten dizkiogu.



Gidatuz Goza ezazu



ALDIBI AUTOAK, S. A.

Olaso kalea, 23 - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 37

Zigarrola kalea, 1 - 20500 Arrasate
Tel: 943 71 20 02



JAKIN



a k a d e m i a

INFORMATIKA

- Ofimatika
- Programazio
- Aurkezpen hizkuntzak
- Grafikoak
- Internet

KONTU ETA MERKATAL GESTIOA

- Nominak eta gizarte segurantzak
- Kontabilitatea
- Fakturazioa

MEKANOGRAFIA

KLASE PARTIKULARRAK

- Matematika
- Fisika
- Kimika
- Kontabilitatea
- Matematika finantziarioa
- Literatura
- Latina
- ...

TALDE MURRIZTUAK • KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Arregitorre, 6 • Tel: 943 74 08 95 ELGOIBAR / Santalaitz, 6 • Tel: 943 76 00 68 BERGARA

TANTTAKA TEATROA



ASIER HORMAZA

JOSEBA APAOLAZA

NIKO LIZEAGA



EUSKO JAURLARITZA



eskena



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



ELGOIBARKO UDALA

SHAKESPEARE
GOSIA
(gutxi gora-behera)

HERRIKO ANTZOKIAN · urriak 2 ostirala · gaueko 22:30ean